

Poesiaren kritikaz

JON KORTAZAR



Poesiaren agerpena kritika alorrean gutxitu egin omen da. Inpresioaren gainetik, zenbakiak horixe adierazten dute.

Hiru iruzkin eder

Orain gutxi gehigarri kultural honen arduradunak, Teresa Abajo kazetari trebeak, Espainiako poesian urteak emandako hiru liburu aipagarriren iruzkin bana egitea eskatu zidan. Nik ere esan dezaket «Hiru iruzkin eder egitea agintzen dit Teresak», nahiz eta bertsoa soneto baterako baliogarri izan ez.

Ez dut azalduko gaur zergatik egiten ditudan gazteleraz argitaratu diren poesia liburuen iruzkinak egunkari honetan, nahiz eta urruntasunak ematen duen lasaitasunagatik ere badela aitortu badut inoiz. Gainera liburu ederrak irakur-

tzeko beta dut, Nobel sariak barne. Ai nire Szymborska, ai nire Gluck maitea, eta nire Olds maiteagoa!!!!

Baina Espainiako poesia ez dut txakurrek ehiza jarraitzen duten eran irakurtzen, guztia- ren xerka. Horregatik zaila egin zait enkargua betetzea. Zein ote dira aurtengo hiru liburu nagusiak? Zer dute berezi? Nola jakin nagusi ote diren benetan?

Poesia Kritika

Eta orduan pentsatu nuen Espainiako literatura gehigarri- rik garrantzitsuenetariko bat aztertzea, eta ikustea zenbat poesia liburu komentatu dituen urte honetan zehar.

El Cultural arte gehigarria as- tero erosten dut Mungiako den- dari prestu batzuei esker, han itxaroten dute pazientzia han- diz, ni agertu arte txukun gor- dez ('Aldapa' dendako adiski-

deak dira haiek, izenak ere eman behar ditut eta). Eta ez ditut soilik erosten, zaindu ere egiten ditut, eta gaur egun arte (azaroko azken asteak arte) urte osoan agertu diren aleak ditut pilatuak. Ohitura gordeza- le horri esker, zenbaki guztiak aztertze-ko modua dut, eta hasi naiz begiratzen zenbat poesia kritika agertu diren aurtun al- dizkari horretan.

Alde batera utzi ditut atzerri- ko poeten lanak. Eta oso onak argitaratu dira 2024an. Gorago aipaturiko Szymborskaren lan guztiak (otsailean), edo Mark Strand poeta amerikarraren antologia (maiatzean) eta biak aipatu dira gehigarri horretan. Edo osotasuna bilatu duten beste liburu aipagarri batzuk, hala nola Ana María Moixen poema guztien bilduma (apiri- lean) edo Álvaro Valverderen lanaren antologia (azaroan).

46 astetan 12 iruzkin

Horiek guztiak kontuak hartuta baina kontatu gabe, 46 astetan El Culturalek 19 poema liburu berriren albistea eman du. Hi- labete bi eman zituen 2024ko poema liburu baten agerpena egiteko, aurrekoa asteetan 2023koak agertu baitziren. Ge- roago etorri dira Daniel Rami- rez, Herrero, Roel, Bejarano, Ri- vera Taramillo, Rivero, Aragón, Andrés Llamero, Munárriz, Sánchez Santiago, Valero, Díez... poeten aipamenak. Ema- kume baten poema liburu ba- ten lehen iruzkina, Maribel An- drés Llameroren '80.000 solda- dos de terracota' rena, maia- tzean agertu zen.

Deigarria da 19 besterik ez

El Culturalen zifrak ikusita arrazoia eman behar diot Txus Visorri: «Zaila da poesia medioetan agertzea»

agertzea, baina kontua larria- goa da zeren 5 aipatu ziren li- buruaren egunari eskainitako alean (apirilean), eta horien ar- tean 3 besterik ez ziren berriak –bi apailaturiko obrak ziren-. Beste horrenbeste gertatu zen udako aholkuetarako eskainita- ko alean (uztailean). Horretan 4 agertu ziren. Batean eta bes- tean iruzkin bakoitzak 35 eta 40 hitzen arteko luzera zuen (250 karaktere), azken batean aipamenak besterik ez, posta- lak, telegramak. Ale horretan 101 libururen berri eman zen, horien guztien artean 4 ziren poesiakoak.

Zazpi aipamen txiki horiek kenduz gero, guztira 46 astetan 12 iruzkin eskaini dizkio El Culturalek Espainiako poesia berriari. Ia-ia hilean bakarra.

Ohitura dut 'Territorios' ho- netan poesiari buruzko iruzkin bat ateratzen dudanean, Viso- rreko editoreari kopia bat bi- daltzea. Eta beti erantzuten dit: «Zaila da poesia medioetan agertzea, eta eskertzen dizut lana». Ez nuen nik zailtasuna ikusten. Baina El Culturalen zi- frak ikusita arrazoia eman behar diot Txus Visor adiski- deari. Benetan egoera latza, la- tza benetan datu hauek ikusita.

Etorkizuneko Euskal Herria

AIORA SAMPEDRO

Fikzioa nahi duenak, fikzioa topatuko du orrialdeotan. Dokumentazio-lana nahi duenak ere, ikerlan eskerga topa- tuko du Urmenetaren testuan eta aldi berean, nobela grafikoan irudiak ere to- patu nahi dituenak, Urmenetak ma- rrazkiz osatutako mundu- propio bat topatuko du libu- ru honetan.

Izan ere, testu hibridoa sortu du Asisko Urmenetak, kontrako azalean jartzen duen gisan, «Egiak eta ale- giak» biltzen dituen. Izan ere, barnean ditu Kapitolina Bustintza Larrondo, Malena Jauregiberri Erbin, Jule Fernandez Zabaleta, Katalina Alastuei Garaikoetxea, eta Elbira Zipitria Irastortza emakume irakasleen ekime- nak biltzen dituzten doku- mentuak, baita haien ekin- tzazailtza irudikatzen duen Urmenetaren testua ere.

GORA EUSKAL HERRIENTSAK

Asisko Urmeneta
Ed: Gor euskal herrientsak. 91 or. 2024. 25 euro.



Aldi berean, haiek euskal eskoletara- ko sortutako material didaktikoak iru- dikatzen dira, eta irakasleekin berekin elkarrizketan jarri, haien mundu-ikuske- ran zuten lekuaren neurria emateko. Hartara, Kapitolinak apailatutako 'Com- pendio histórico del Antiguo Reino de Navarra' ren irudikapena egingo du Ur- menetak, zeinetan euskaldunek Nafar, Gaztelar, Frantses koroapeetan eginiko sarraskiak erreku- peratu eta berriraku- rriko diren. Pasarte horiek oso molde berezia hartzen dute, fikzio irudikatu- ren bidez protagonistei zuzenean zuzen- duko zaizkien pertsonaia historikoen bi- dez: Allande Oihenart, Ga- tzaren matxinoak, besteak beste. Bestalde, Jule Fernan- dezek Montessori metodoa jarraituz sortutako eskolak ardatz, hark 'Emakumien etorkizuna' manifestuan al- darrikatuak ekarriko dira ga- raiko emakumeen ahotan.

Malena Jauregiberri, Kata- lina Alastuik nahiz Elbira Zi- pitriak egindako lana gogo- ratu eta jasandako jazarpe- nak salatzearekin batera. Kontakizun historikoa his- toriako kontakete-kin gain- jartzen da, zirrargarria eta, aldi berean, irakasgarria den testu batean.

Heteropatriarkatuaren arrailak

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Azken urteotan literatur genero desber- dinak -haur eta gazte literatura, eleberria, saiakera, besteak beste- jorratu ondoren, Uxue Alberdi kontakizun laburretara itzuli da -20013an argitara eman zuen 'Euli- giro' azken ipuin sorta- 'Hetero' osatzen duten zortzi istorioekin. Haietan euskal gizartearen gaineko kontzientzia kritikoa adierazten du orainaldian eta XX. men- deko 70. eta 90. hamarkade- tan girotzean.


Alberdik aurkeztzen dituen gertakari, errealitate horiek heteropatriarkatuan pentsa- razten dute, hau da, nola da- goen tenkatuta gizarte-egitu- ra modernoan gizon eta ema- kumeen rolen inguruan, ora- indik botere erlazioetan eta izaera azpiratzailean eraikia, horien argi-itzalak islatzen di- relarik kontakizunetan.

Emakumezko protagonis- ten harremanei buruz idaz- ten du, lan esparrukoetan, odo- lekoetan edo hautazkoetan au- sardiaz arakatu bitartean. Alde batetik, egunerokoan sortzen

diren pitzaduretatik lan, familia zein bi- kote ekosisteman hain usu diren desero- sotasuna, ezinegona eta bizi-arauekiko desakordioak sartzen zaizkie pertsonaiei, esaterako, ama izateaz, emakumeek pai- ratutako bortizkeriaz, sexu-abusuaz, aita- alaben zor afektiboez edo sormenaz idazle eta editore baten artean. Beste aldetik, isil- tasuna nabaria dugu, aipatutako guztia isilean gorde egiten dutelako.

Hizkuntza zaintzeaz gain, Alberdik era- biltzen dituen teknika eta erre- gistro anitzak oso interesga- rriak suertatu zaizkit. Izan ere, istorioak oso era naturalean, organikoan, idatzita daude ba- koitzaren eraketari berezko arre- ta emanez: atzekoz aurre- ra kontatzen du ('Sehaska kan- ta'), lehen pertsonan ('Ukitzen gaituen ura'), Whatsappeko elkarrizketak baliatzen ('Lite- ratura lezioak') edo erdara- ren esamoldeak tartekatzen ditu ('Uso-pasea').

Esana esan, irakurleei huts egingo ez dien liburu baten aurrean gaude, Alberdik an- bizio eta pulstu narratiboari ongi eusten diolako.



SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Hetero** Uxue Alberdi. Susa
- 2 **Pleibak** Miren Amuriza. Susa
- 3 **Miñan** Amets Arzallus-Ibrahima Balde. Susa
- 4 **Maitasun kapitala** Karmele Jaio. Elkar

EZ FIKZIOA

- 1 **Amerikaren arrakalak** Mikel Reparaz. Alberdania
- 2 **Aberriaren inpaseak** Joseba Zulaika. Alberdania
- 3 **Ele eta hitz, ahoz eta idantziz** Jose Angel Irigaray. Pamiela
- 4 **Elkanoren herriari bueltaka** Ander Izagirre. Libros del K.O.